

EUSKALDUNTZE ALFABETATZEA. UEUko Glotodidaktika sailak eta HABEk elkarlanean antolatu dituzte jardunaldiok

Metodologia izango dute hizpide bihar 200 irakaslek Donostian

Euskara irakasleen arteko komunikazio esparruak indartzea izango dute helburu jardunaldiek

Ainara Argoitia | DONOSTIA

Helduen euskalduntzearen IV. jardunaldiak egingo dira bihar Donostiako Kursaal jauregian, *Metodologia euskara 2H gisa irakatsi eta ikasteko prozesuetan* izenburupean. Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) Glotodidaktika sailak eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) antolatzen dituzten jardunaldi horien helburua euskara irakasleen arteko komunikazio esparruak indartzea izango da.

Irakasleen etengabeko prestakuntza eta eguneratzea sustatu aldera sortu zen HABE eta UEUren arteko lankidetzak, orain lau urte inguru. Orduz geroztik, bi erakundeek, elkarlanean, irakasleen prestakuntzari begirako hainbat jardura bultzatu dituzte, eta horren adibide dira bihar egingo diren jardunaldiak. Guztira 200 lagun inguruk parte hartuko dute —egunean bertan ere izen emateko aukera izango da— goiz eta arratsaldean egingo diren jardun-



Jokin Azkue HABEko zuzendaria, Xabier Isasi UEUko zuzendaria eta Abel Camacho jardunaldien arduraduna, atzo Donostian egindako prentsurrekoan.

diotan. Ordubeteko hitzaldi nagusi bi eta 20 minutuko hamar komunikazio izango dira. Edukiari erreparatuz gero, berriz, jardunaldiak hiru gai nagusitan banatu dituzte: jardunaldien gai nagusiarekin lotzen diren saiok, autoikaskuntzaren gainekoak, eta euskararen estandarizazioari dagozkionak, azkenik.

Xabier Isasi UEUko zuzendaria eta Jokin Azkue HABEko

zuzendariak jardunaldiok aurreko urteetan izan duten «arrakasta» azpimarratu zuten. Azkueren hitzetan, «200 profesional ingurutik gora biltzen dira, eta ondorioak begi-bistakoak dira». UEUrekiko lankidetzaren harira, Isasik gaineratu zuen halakoak oso direla garrantzitsuak, «indarrak metatzeaz gain ekarpenak ere ugariak izaten direlako».

Edukiak liburuan bilduta

Jardunaldiak antolatzeaz gain, UEUk, HABEren laguntzaz, II. eta III. jardunaldietako edukiak bildu ditu liburu batean. 1999ko martxoan Gasteizen egindako jardunaldietako eta 2000ko maiatzean Donostian egin zirenetako ponentzia eta komunikazioak jaso dituzte. Jardunaldietan parte hartu zuten guztiek jasoko dute.

EGITARAUA

MAIATZAREN 25A

08:30 Sarrera-ekitaldia

Jokin Azkue (HABEko zuzendaria nagusia) eta Xabier Isasiren (UEUko Zuzendaria) esku

09:30 Ponentzia*Hizkuntza-didaktikaren erronka berriak*
Hizlaria: Matilde Sainz (Mondragon Unibertsitatea)**11:00 - 11:30** Atazatan oinarritutako ikaskuntza (AOI) Willis-en ereduak.

Hizlaria: Natxo Guillen (HABE)

Zibergela. Hizlariak: Ainhoa Uriarte eta Idoia Zuloaga (Amorebieta-Etxanoko Udal Euskaltegia)**11:30 - 12:00** Merkatarientzako ikastaroa AOLren haritik. Hizlaria: Juana Mari Ezker (AEK)*Internet bidezko euskalduntzerako metodologia-ohar batzuk.* Hizlaria: Gloria Sanchez (Santurtziko Udal Euskaltegia)**12:00 - 12:30** Okerraren oker adarra.

Hizlaria: Karlos del Olmo (EIZIE)

Abegi euskaltegiak telefono sistema.

Hizlaria: Garbiñe Loiarde (Abegi euskaltegiak)

12:30 - 13:00 Ahoz gora irakurtzea 2Hren irakaskuntza. Hizlaria: Leire Diaz de Guereñu (EHU)*Mintza Saiok autoikaskuntza gelan: eredu bat.* Hizlaria: Sagrario Crespo (Abegi euskaltegiak)**16:00** Ponentzia*Gaitasun komunikatiboa Europako**Kontseiluaren lanaren argitan.* Hizlaria: Joseba Ezeiza (Legazpi 6)**17:00 - 17:30** Batasunerako irizpideak.

Hizlaria: Miren Azkarate euskaltzaina

Hizkuntzaren jabe egiteko, hartu hitza.

Hizlariak: Juanjo Uranga, Pello Aranburu eta Antton Peñalba (IRALE)

17:30 Atsedendia**18:00** Mahai-ingurua*Jokabide metodologikoak Helduen**Euskalduntzean.* Parte-hartzaileak: Justo

Egaña (HABEko teknikaria), Alex Vadillo

(AEKko teknikaria), Pedro Lombide

(Santurtziko Udal Euskaltegia), Patxi

Telletxea (Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala)

19:30 Amaiera**LANBIDE HEZIKETAK.** 660 adituk gora ari dira parte hartzen LHko ikastetxe integralei buruzko Lehen Nazioarteko Biltzarrean

Ainara Argoitia | DONOSTIA

Lanbide Heziketako (LH) ikastetxe integralen antolaketa, jardura eta kudeaketarako ereduak aztertu eta zabaltzeko, eta beraien esperientziak, proiektuak eta metodologiak trukatzeko aukera izan zuten atzo Donostiako Kursalean egiten ari den Nazioarteko Biltzarrean bildu ziren adituek. Gaur, atzoko gogoeta berari helduko diote biltzarrean parte hartzen ari diren 660 aditu inguruk.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatutako lehenengo biltzar hau «oso berri-zailea» izango zela esan zuen atzo Iñaxio Oliveri sailburuak inaugurazio ekitaldian. Lanbide Heziketako ikastetxe integralak prestakuntza zabalerako «ezinbesteko» tresna direla esan zuen Oliverik, eta aldi

Esperientziak trukatu eta metodologia berriei buruz aritzeko aukera izango dute gaur adituek

berean gaineratu zuen lanbide heziketak hainbat herrialdetako politiken «funtsezko ardatz» bihurtu direla.

Lanbide Heziketako ikastetxe integralei buruzko lehen Nazioarteko Biltzarrak interes handia sortu duela azaldu zuen Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak, eta horrek «esperientzia aberasgarriak trukatzeko» aukera emango duela nabarmendu zuen.

Europa Batasuneko hamaika hizlari, Estatu Batuetatik, Kanadatik eta Zeelanda Berritik etorritako 47 profesional, Espainiako Lanbide Heziketako eta Lanerako Prestakuntzarako 20 arduradun eta 43 teknikari ari dira parte hartzen atzo hasi eta

bihar bukatuko den biltzar honetan. Era berean, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 66 ikastetxeetako ordezkariak ere Donostian dira, atzoz geroztik, Lanbide Heziketen inguruan atzerriko ikastetxeek duten eskarmentutik gauza berriak ikasteko asmoz.

Lanbide Heziketak: etorkizun oparorako giltza

Lanbide Heziketak «etorkizun oparo baterako giltza» edo «funtsezko tresna» direla adierazi zuen atzo Iñaxio Oliverik. Azken mende honetan izan diren aldaketek hezkuntza eta formazio sisteman «nabarmen» eragin dutela esan zuen Oliverik, eta horrek guztiak hezkun-

tza iraunkorraz gogoeta sakon bat egitea eskatzen duela gaineratu zuen. Haren hitzetan hezkuntza iraunkorreko sistema horrek helburu bi izan behar ditu oinarrian: batetik, aldaketetara garaiz egokitzeko aukera emango dien oinarritzko formakuntza eskaini beharko lieke sistema horrek gizon-emakumeei; eta bestetik, etorkizuneko lanetara ez ezik, egungoetan ere ondo moldatzeko moduko formakuntza eskaini beharko luke.

Haatik, Oliverik esan zuen gizon-emakumeak lehia ekonomikorako prestatu behar dituen hezkuntza sistema horrek ez dituela beste giza baloreak bazter utzi behar. Jaurlaritzako

Hezkuntza Sailburuaren esanetan, «Hezkuntzaren alderdi ekonomikoek ez dute alde kulturala itzalpean utzi behar; hezkuntza politika batek ez ditu inoiz giza baloreak eta balore kulturalak ilundu behar».

Lanbide Heziketen euskal planari aipamena eginez, Oliverik esan zuen, «1995ean abian jarri genuen planak Lanbide Heziketako ikasketa arautuak eta ez arautuen arteko mugak ezabatzea, eta ikastetxe eta enpresen arteko harremanak indartzea bilatzen du».

Lanbide Heziketako ikasketak lan mundura jauzi egiteko beste bide bat direla gogorazi zuen Oliverik, eta horren harira zehaztu zuen, lanbide heziketek %25tik %44ra egin dutela Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian, sei urteren buruan.